

LEGAZPI / Interneten Wi-Fi bidez sartzeko sistema jarri dute liburutegian

Edonork erabili ahalko du, ordenadore eramangarriarekin; webgunea eta batzar aretoa tresnekin berritu ditu Udalak

Miriam Luki

Legazpiko Udalak teknologia berriak erabiltzearen aldeko konpromisoa hartu zuen iaz, eta horretarako zenbait proiektu burutu ditu. Bide horretatik zenbait berritasun egin dituzte udaletxean: herriko webgune ofiziala (www.legazpiko-udala.info) berriztatu egin dute, adibidez. Bestetik, udal liburutegian Wi-Fi sistema ipini dute, eta udaletxeko batzar areto nagusia multimedia-areto bilakatu dute, tresna berriak jarritz.

Berrikuntzarik nabarmenenak Udalaren webgunean somatu daitezke. Apirilaren 1ean sareratu zuten interneteko webgune berriztatua, diseinu, eduki eta erabilpen berriekin.

Interneteko orrian egin dituzten aldaketa guztien arrazoiak ezberdinak dira. Karmele Arruebarrena informatikako udal teknikariak dioenez, alde batetik administrazioa arautzeko webgune erabilgarriak egitera behartzen gaitu. Hortaz, gure webguneak teknologia aldetik erabilgarria izan behar zuen edozein herritarrentzat. Orain edozein modem edo nabigatzaile edukita ere edonork sar daiteke webgunera. Webguneak eduki egituratuak ere badituela argitu du Arruebarrenak.

Azken batean, helburua webgunera ahalik eta jende gehiena iristea da. Ildo horretatik, edukiek eguneratuta egon behar dute beti.

Aldaketekin herritarren parte-hartzea bultzatu nahi duela adierazi dute Udaletik, batez ere Legazpi Bai! proiektuari jarraiki. Legazpiarrek kexak egin, eskaerak adierazi eta zenbait ziurtagiri lortu ditzakete webgune berriaren bitartez.

Helburu horiek guztiak bete ditzan, Legazpiko webguneari itxura erakargarria eman nahi izan diote.

Multimedia aretoa

Beste berritasunetako bat liburutegian jarri duten Wi-Fi sistema da. Interneten haririk gabe konektatu ahalko du edozein herritarrek, norbere ordenadore eramangarriaren bitartez nabigatuz.

Batzar areto nagusian ere zenbait tresna berri jarri dituzte. Atzo kokatu zuten azkeneko aparatua, eta gaur egingo duten bileran erabiliko dituzte lehenengo aldiz. Batzar aretoa multimedia areto bilakatu dute; proiektorea, ordenadore eramangarria, DVDa, pantaila, bideo kamera eta beste zenbait

tresna elektronikorekin hornitu dute. Baliabide horiek aretoan egiten diren bileretan erabiliko dituzte, batez ere.

Karmele Arruebarrena informatika teknikaria

Geroz eta gehiago dira webguneak jasotzen dituen bisitak Karmele Arruebarrena (Legazpi, 1974) udaletxeko informatika teknikari hasi zela lau urte beteko dira aurki. Berak kudeatu ditu Udalak teknologia berrietan egin dituen berrikuntza guztiak.

Noiz hasi zineten berrikuntzak prestatzen?

Iaz hasi ginen webgunea prestatzen eta berritzen. Aurrekoaren edukiak aprobetxatu ditugu, baina konturatu ginen webgunea erabilgarri egiteko goitik behera aldatu beharra zegoela.

Orain arte zenbateko partehartzea izan dute herritarrek?

Oraindik goiz da, denbora gutxi pasa baita webgunea martxan dagoenetik. Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du, batez ere Legazpi Bai! proiektuaren inguruan.

Jendeak nola hartu dezake parte?

Foro bat ireki dugu adibidez, eta bertan bakoitzak herriaren inguruan dituen iritziak eman ditzake. Bestetik, inkesta bat ere ipini dugu sarean. Galdetzen duguna Legazpi bai! proiektua ea ezagutzen duten da.

Eta herritarrak sartzen al dira?

Bai. Geroz eta gehiago dira webguneak hartzen dituen bisitak. Dena den, webgunea oraindik ezagutarazi egin behar dugu. Poliki gauzatzen den prozesua bada ere, egungo bisita hutsak parte-hartze bilakatuko dira denborarekin.